

Irakeko Kurdistan

Saddam Husseinek milioika minaz josi zuen Kurdistango lurraldea, Turkiatik sar zitekeen inbasioa geldiarazteko. Hussein orain ez badago ere, iparreko mehatxuak bizirik dirau, baita lur azpikoak ere.

Argazkiak eta testua:

KARLOS ZURUTUZA

“LANERAKO EGUN ZORAGARRIA gaurkoa; eguzkitsu, eta iparreko ukituaz.” Honela agurtu du Faris Zuber nagusiak bere taldea goizean, eta bat datoz denak. Gutxitan aurki daiteke honelako jarrera baikorra astelehen goiz batean. Eta are gutxiago, anbulantziak zure lantokiaren alboan egon behar duenean, badaezpada. Egia esan, alboan ez, ehun metrora baizik... badaezpada. Ezbeharrak gertatzekotan, hobe da Zuber eta bere taldearentzat auto zuria ez tandaren erradiotik at egotea. Izan ere, IKMAA (Irakeko Kurdistango Minen Kontrako Ekintza) erakundeak kudeatutako mina-garbitze eremuetako bat da hau. Bertan, lurperatutako bonbak aurkitzean datza eguneroko errutina.

—Joan den maiatzean hasi ginen *garbitzen* hemen —dio Zuberrek, biktima baten izena duen Gre Barojy eremuan—. Dagoeneko 48 mina indargabetu ditugu, baina hiru istripu larri izan dira bitarte horretan. Italiar mina madarikatu hau da erruduna, Valmara 69a. Ez dugu babesik honen kontra.

Zuberrek aipatutako tramankulua ez-ohiko lehergailua da, bere triku itxuragatik eta, batez ere, bere funtzioagatik. Antza, mina gehienak heriotza ez, zauriak eragiteko eginak dira, soldadu herren batek asko motel baitezake troparen erritmoa. Valmara, baina, erailtzeko sortua da.

—Aktibatu eta berehala, metro erdiko jauzia egiten du; hortik, ez tandak mila burdin pusketara, mila bala, bidaltzen ditu kanpora. Italiar lehergailuak 25 metroko erradioan hiltzen du eta munduko minarik arriskutsuena da —gaineratu du desaktibatzaileen nagusiak.

Luze mintzo da gizon hau lur azpian aurki daitezkeen tramankulu hiltzaileez, inongo nahigaberik azaldu gabe: Valmara bezalako fragmentazio-mina hilgarriak, zauritzeko eginak diren pertsonen kontrakoak, blindatuak geldiarazteko jaki ontzi itxurakoak... Azken finean, bere lantresnen deskribapen hutsa baino ez da egiten ari; egunero, eta duela urte askotatik, inguruan izan dituen objektuena. Zuberrek



hogei urte eman ditu jada minak indargabetzen, baina txikitatik ezagutzen ditu lur azpiko lehergailuen arriskuak. Dioenez, bere aita izan zen ikusi zuen minen lehenengo biktima.

—Duela urte batzuk Jordaniara gonbidatu ninduten, kooperazio programa baten barruan —ekarri du gogora—. Minen kokapena adierazten zuten mapak zituzten, bazekiten non eta zenbat zeuden. Gainera paisaia hura ezin hobea zen lanerako, laua, eta batere begetaziorik gabea.

Kurdistan, ordea, guztiz kontrakoak da. Sas-trakez beteriko mendiak dira gureak, horregatik

Turkiako mugan, zoruaren beldur

tik erretzen dugu aurrena garbitu beharreko eremua. Tenperatura 50 graduraino igotzen da maiz udan, eta jasanezina da gure ekipamendua halakoetan. Neguan aldiz, elurra da nagusi hemen, eta udaberria iritsi arte ezin diogu lanari berriz ekin. Eta, jakina, ez dakigu non eta zenbat mina dauden, Saddamek ez baitzion NBERi inongo maparik luzatu...

Pazientzia lagun

Metal detektatzailea da urdinezko gizonen ezinbesteko erreminta, baita bere "itsuaren

bastoia" ere. Horri eskerrak jakiten du langileak non zapaldu edo, hobe esanda, non ez. Makil bitxi honek igortzen duen frekuentziak soinua egiten du eta hots horrek metalezko objektuez ohartarazten du.

—Langileak zerbait aurkitzen duenean, lanari utzi eta sekzio arduradunari jakinarazten dio. Eta honek gainontzeko langileei, 50 metroko segurtasun distantzian egon daitezten. Jarraian, bilatzailea seinalearen jatorri zehatzetik 15 zentimetrora hasten da induskatzen, espatula txiki batekin: poliki, eta kontu handiz —azaldu du



Goiko irudian, Faris Zuber (zuriz) eta Gre Barojyko desaktibatzaile taldea; eskuinekoan, langileetako bat mina izan daitekeenerantz kontu handiz gerturatzen.



Mina gehienak heriotza ez, zauriak eragiteko eginak dira, soldadu herren batek asko motel baitezake troparen erritmoa

nagusiak, belauniko prozesu horretan buru belarri ari den langile bati erreparatu—. Mina bat baldin bada, bere ingurua makil gorriez hesitu eta egunaren bukaeran eztandarazi egiten dugu. Dena den, lehergailua toki arriskutsu batean egon daiteke, hots, etxe baten alboan. Kasu horretan eskuz desaktibatu beharra dago. Mina batzuk herritarrek indargabetzen dituzte hemen ez gaudenean. Mila aldiz esan diegu hona ez sartzeko, eta, jakina, istripuak gertatzen dira.

Askotan, burdin pusketa xume batek marxtan jartzen du protokolo osoa. Tamalez, pro-

zesu motel hau oso-osorik burutu behar da seguru egon ahal izateko.

–Jatorri militarra duten desaktibatzaileek istripuak eragiten dituzte maiz –baiezta du Zuberrek–, lehergailuak indargabetzeko euren prozedurari eusten baitiote beti, segurtasun protokoloa alde batera utziz. Ausardia ez, pazientzia da ezinbestekoa lan honetan, horregatik ez dago soldadu edo *peshmerga* (gerlari kurdu) ohirik gurean.

Urdinezko gizonak txabola ttipi batean elkartu dira lana bukatzean, Gre Barojy eremuko itzalpe bakarrean. Hiru mina indargabetu eta gero, goizean hasitako langile guztiak bueltatu dira. “0 eta 3” etxekoen aldeko emaitza da hemen. Normalean zazpi orduko lanaldia burutzen du taldeak, baina Ramadanak irau bitartean sei ordukoa da laneguna. Nolanahi, ez dute itxarongo eguzkia ezkutatu arte ura edateko. *Kevlaren*zko ekipoak batetik, eta lanaren berezko tentsioak bestetik, makina litro likido galarazten diete langileoi.

Mina eremua atzean utzi bezain laster, ume errenkada batekin egin dugu topo erre-pidean. Pozik doaz denak, eskola bukatzean haur orok duen sentsazio atseginaz. Algara alaiak Gre Barojyko detektatzaileen hots ilunak uxatu dituzte nire belarrietatik. Karretera bazterrean jarri dira umeak gure autoari tokia uztearren. Baina inor ez da asfaltotik atera, badakite denek sastrakek oso lur idorra ezkutatzan dutela. ■

Minen zenbaki gordinak

Afganistanekin batera, munduko zonalde minatue-na da Irakeko Kurdistan. Gobernuko IKMAA erakundearen estimazioen arabera, lau milioi biztanleko lurralde honetan, biztanle bakoitzeko lauzpabost mina daude. Honen aurrean, Kurdistanango Gobernuak Gre Barojy bezalako 6.000 eremutan garbiket-ak egiten ari da. 700 kilometro koadrokoa da hauen guztien batura. Azken 35 urteetan, 14.188 ezbehar izan dira, 7.609 hildako eta 6.579 zauritu. 18.000 animaliak ere sufritu dute lehergailu mota hauen eztanda.



Valmara 69a, munduko minarik arriskutsuena.

Tragediaren bi aurpegiak

Haji Kuban

IKMAAko mina desaktibatzailea

“Etzetik ateratzean badakit agian ez naizela bueltatuko”



Bost urte eman ditu Haji Kubanek mina artean. Prezio handiz neurtutako milaka pauso eman ditu denbora tarte horretan, eta honela jarraitzeko asmoa dauka.

Zergatik aukeratu zenuen lanbide hau?

Bagire izeneko herri ttipian jaio nintzen, hemendik bost kilometro eskasera. Nire lurraldea da hau. Nik ez badut garbitzen, nork egingo du?

Ez al duzu beldurrik?

Etzetik ateratzean badakit agian ez naizela bueltatuko. Dena den, beldurra ezinbestekoa da lan honetan. Beldurra adi egoten laguntzen dizu. Konfiantza gehiegi hartzean datoz istripuak. Horregatik da hain garrantzitsua protokoloa oso-osorik jarraitzea, zure segurtasunagatik, baita zure lankideenagatik ere.

Zure ustez, zein gaitasun behar ditu mina desaktibatzaile batek?

Pazientzia handia, eskuetako trebetasuna eta talde-lanean aritzeko gogoia. Esan bezala, talde osoak jasan ditzake zure akatsen ondorio larriak.

Nongoak dira aurkitzen dituzuen minak?

Eremu konkretu honetan italiarrak eta irakiarrak dira nagusi. Orobat, Frantzia, Alemania, AEB, Errusia edo Suedian egindakoak izan ohi dira Kurdistanen.

Zenbat indargabetu ditzakezue egun batean?

Batzuetan hogeit hamar, eta bat ere ez bestetan, eremuaren arabera. Hasi nintzen lehenengo urtean ehunera iristen ginen maiz leku kutsatuetan. Ikaragarria zen.

Honelako jarduera arriskutsua ondo aitortua al dago diruz?

Joan den apirillean greba egin genuen desaktibatzaile guztiok: hilean 300 dolar besterik ez genituen jasotzen; trafikoa polizien baten soldata bera, hain justu. Zorionez, gobernuak egoeraz jabetu zen eta orain bikoitza kobratzen dugu.



Blindatuen aurkako minak eta Valmara 69ak.

Fathya Muhammad

Protesi saileko arduraduna Dahukeko ospitalean

“Gure paziente gehienak Mosul eta Bagdadetik datoz orain”



Fathya Muhammadek milaka minek eragindako biktimak eza-gutu ditu bere postuan daramatzan zortzi urteetan. Biktimen kopuruak beheraka egin duela dio, minak indargabetzeko taldeak gogor ari baitira eskualdea garbitzen

Zein da zure sailaren egitekoa?

Istripuen biktimen tratamendua egiteko: belaun gaineko nahiz azpiko hanka ortopedikoak, bai eta ukondo gaineko nahiz azpiko beso ortopedikoak ere. Bestalde, gure lanaren zati da protesi horien guztien mantenua egokia.

Minek besoetan zauririk eragiten al dute?

Bai, hainbat herritar euren kaxa saiatzen dira lehergailuak desaktibatzen, eta ez dute beti asmatzen. Tamalez, umeak tartean dabilta sarri, eta askoz ere efektu lazgarriagoa du minaren leherketak hauen gainean.

Zenbat minen biktima jasotzen dituzue hilabeteko epean?

Dahukeko eskualde honetan hamar bat kasu berri eta 70-80 kasu zahar, mantenuarako datozenak alegia.

Zein da zonalderik arriskutsuena?

Gure paziente gehienak Zakhokoak izan ohi zirenean, Turkiako mugan. Orain Mosul eta Bagdadetik datoz gehienak. Minena baino, bonben biktima dira horiek.

Ez al dago Bagdaden protesi sailik?

Ez. Bi baino ez daude Irak osoan, eta biak Kurdistanen: honako hau, eta Dianakoa, Irango mugatik hurbil.

Irango muga Turkiakoa bezain arriskutsua al da?

Bai, muga biak lehergailuz josita daude.

Minen biktimen kopurua dela eta, gorakadarik sumatu al duzu hemen zaudenetik?

Beherakada esango nuke. Minak indargabetzeko taldeak gogor ari dira eskualdea garbitzen. Bestalde, umeek prestakuntza jasotzen dute eskola barruan. Minen arriskuei buruzko ordubeteko saioa daukate aste-oro. Bi faktore hauek klabeak izan dira biktimen beherakada horretan.



Protesiak erakusgai Dahukeko ospitalean.